

TREBAKUNTZA 2024-01

ORDUAK



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Udal idazki askotan orduak oker idatzita ikusi ditugu. Orduak behar bezala idazten hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoa duten esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Bilera martxoaren 23an izango da, 9,00etan.*
2. * *Batzarra ordubatean hasiko da, eta ordubietan bukatu.*
3. * *Ekitaldia arratsaldeko seiretan hasiko da.*
4. * *16:30etan hasi zen aurkezpena, eta 18:15etan bukatu.*
5. * *Udaletxearen ordutegia: 9.00 – 14.00.*
6. * *Hamaikak laurden gutxietan egingo dugu batzarra.*
7. * *Hitzaldia luze samarra izan zen, zazpietaraino luzatu zen.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Orduak zenbakiz jartzean, erabili lau zifra eta bi puntuak:

Bilera martxoaren 23an izango da, 09:00etan.

2. Forma zuzenak hauek dira: ordu batean eta ordu bietan:

Batzarra ordu batean hasiko da, eta ordu bietan bukatu.

3. Oro har, orduak deklinatzean, -tan edo -retan bukaerak ez dira zuzenak:

*Ekitaldia arratsaldeko seietan hasiko da (eta ez *seiretan edo *seitan).*

ONDO DAUDENAK: hiruretan, lauretan, bostetan, seietan, zazpitan, zortzietan, bederatzieetan...

GAIZKI DAUDENAK: *seiretan/seitan, *zazpiretan/zazpitan, *zortziretan/zortzitan...

4. Orduak zenbakiz ematean, minutuak deklinatu behar ditugu:

16:30ean (=hogeita hamarrean) hasi zen aurkezpena, eta 18:15ean (eta hamabostean) bukatu.

5. Ordu tarteak idazteko, erabili lau zifra, bi puntuak eta marratxoa tartean (espaziorik gabe):

Udaletxearen ordutegia: 09:00-14:00.

6. Orduak letraz idaztean, ondo erreparatu deklinabideari:

Hamaikak laurden gutxi(ago)tan egingo dugu batzarra.

ONDO DAUDENAK: hamar eta erdietan, hamaikak laurden gutxi(ago)tan...

GAIZKI DAUDENAK: *hamar eta erditan, *hamaikak laurden gutxietan...

7. Denboraz ari garenean, ez da noraino erabili behar, noiz arte baizik:

Hitzaldia luze samarra izan zen, zazpiak arte luzatu zen.

OHARRA: arauok idatziari bakarrik dagozkio.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!